



Nafarroaren eguna

Urtero bezala aurten ere ospatu da Nafarroaren eguna Baigorri. Eguraldi txarra egin zuen, euria leher eta giro txarra. Ez da lehenbiziko aldia eguraldi kaxarra egiten duela, berte urtean ere behin baño gehiagotan eguraldiak ez du behar den bezala lagundu. Halare yendea bildu zen eta bi aldetako nafarrak bat eginik, anaien arteko billera ongi goan zen. Zangotzako Erraldioak ez zuten dantzarik egin, eguraldi txar horrekin ez zuten deusere egiten ahal.

Bazkarian giro ona, kantu, bertso eta soñu, 1.200 bazkaltiar maiean bildurik. Soñulari eta kantarien artean hor gintuen Enrike Zelaia akordeolaria eta Erramun Martikorena kantari ospetsua. Dantzari Talde aunitz baziren, Lizarrako «Larrain Dantza», Nafarroako Dantza Nagusia dantzatu zutela.

Penagarria izan zen giro txar horrek nola ondatu zuen besta. Halare yendeen artean bazen umorea eta alkarren arteko anaiatasuna, hor ikusten baitugu gazteriaren zaletasuna, Nafarroako Erresuma bat eginik muga guzietatik.

Baigorri Nafarroako Kondairan garrantzi handia izan du. Baztan eta Baigorri beti izan dute har-eman haundiak, barri-deak gara, Baztan eta Baigorri

dermioak elkar ukitzen dute eta badugu elkarrekin garrantzi haundiko loturak. Erran dezadan ere Baigorrikin bezala berte herri aunitzekin mugatzen duela Baztanek. 52 kilometroko muga hortan, hasi 56 mugarritik 140 raño, hamar herrikin mugatzen dugula: Sara, Senpere, Ainhoa, Ezpeleta, Itsaso, Bidarra, Baigorri, Banka, Aldude eta Urepel. Gure har-emanak izan daitezela anaien arteko zintotasunak eskatzen duen bezala eta elkarren artean beti gure mintzaira garbian bat eginik bizi gaitezen.

Xalbador zanak baditu Nafarroari bertsoak emanak eta guziz hunkigarriak. Hemen erakutsiko ditugu zenbait bertso:

Goizean jeiki ohetik eta non nagon eginik galde, diot: «Aurrean Baztan daukazu, gibelean Erro alde, ezkerretarat Eugi herria, eskuin alderat Luzaide; zure guziak Nafarroaren hegalean azpian daude».

Ene amatxi zendu maitea Aurritzberriko izanik, nafartarren odol kartsua zai-netan senditzen dut nik; eta artzaintzan Sorogain mendi zoragarriat iganik, norbaitek «Atzar hadi» diola entzuten dut urrundarik.

M. Izeta

Isaba'n euskaraz

Erronkari ibarrera joateko irrikatzen nengoela ezin ukatu. Elburu bat neukan buruan: bertako euskaldun gazte batekin euskaraz mintzatu nai nuen. Uztarrozeñ Josu Alastuei'k eman zidan bidea: «Isaba'n Josu Arilla'kin mintzatu zaitez, mutil atsegiña da, baita euskaldun jatorra ere».

Isaba'runtz abiatu nintzen. Erronkari'ko errietan audiena da; zazpireun biztanle ditu. Seisko delako mendia, zuri zuri elurrez josirik zegoen. Giroa negukoa, karrikak aldapatsu ta estuak. Euskal izenak baztar guztietan ageri: Ipar Eskia, Pekoetxe Jatetxea-lorgelak, Osasun etxea, Fonda Txabalkoa, Autoser Mendigatxa eta abar.


Arratsaldean arkitu nuen Josu Arilla. Bi orduz euskaraz bakarrik mintzatu giñan. «Ni Izabar niz», zion. Jaiotzez ez zekien euskaraz. Gure izkuntza menderatzeko lan ederrak artu ditu. Erriko ikastetxean, 1970'garren urtean euskaraz ikasten asi zen, bi egunetan astero ta bi ordu aldiro. 1980'garren urtean, berte sei lagunekin gaueskolara joan zen Erronkari'ko ibarran. 1985-1988 urtetan gaueskolara berriz berte sei lagunekin; bi ordu terdi asteko lau egunetan. Jo ta ke gogor euskara ikasten jarraitzen du. 1987'garren urtean Arratia'ra, udazkenean bi illabeterako ikasketak egitera dijoa. 1988'garren urtean berriz Arratia'ra udaran, berte iru illabeterako. Oraingo ontan, 1989'garren urtean Lazkao'ra, bi illabeterako, Jorailak Loraillaraño 1990'garren urtean: IA ze izerdiak atera zituen euskara menderatzeko!

Gero euskara bertan ikasten asi zen, 1991 eta 1992 urtetan gaueskolak ematen zituen. Iru errietan ematen ziren ikasketak: Erronkari'n sei ikaslekin, Uztarrozeñ berte sei, negu luzean. Isaba'n amar ikasle asi ta bi illabete iraun zuten. Ura zen lana Josu'rentzat; egunez ski lanetan, arratsaldean etxean ikasaldiak antolatzen eta gero gabeskolan euskara ematen. Euskaraz irakasten zula, berak ikasten zuen geiena.

Euskararen alde Erronkari'n egin diren lanik audienak agertu zizkidan. «Erronkari ibarreko eguna ta gaueskolak», berak zion. Erronkari'ko eguna ospatzea gauza aundia zen nunbait. Urtero ibarreko zazpi erriak toki batean biltzen ziren: itzaldiak, dantzak, jaiak eta bertako jantziak agertzen zituzten. Euskara ta erriko kultura goi mallan gelditzen ziren eta euskarak aunitz irabazten zuen.

Nor dugu Josu Arilla? Bertako semea da, Isaba'n Pedrotxozna etxean 1958'garren urtean jaioa. Iruña'n Salesianosetan bortz urte egin zituen. Mendi mutilla da; ski irakaslea eta basolangillea. Euskara benetan maite du. «Estornes-tarrei esker Isaba'ko karriken izenak euskaraz ditugu», zion berak. Erronkari'ko ibarrak, zalantzarik gabe, euskararen arduradun bat Nafarroa'ko Gobernuak izendatu bear luke euki, berte lurraldetan dauzkaten bezala. «Uruña'tik Erronkari urrun da» (Erronkari'ko euskaraz Iruña iriari «URUÑA» deitzen diote. Erronkari'n egiten dena Nafarro osoan nabaritzen da: ez aztu.

Latzaga



Berri ona

Bizitza bizi

«Maite dezazuela elkar» Jn.15, 9-17)

MAITASUNAZ asko itzegiten da. Agian, geiegi. Maitatu baiño geiago itzegiten dela erranen nuke maitasunaz. Maitasunaz errezago itzegiten da egiaz maitatu baiño.

Nagusia, elduak, gazteak eta aurtxoak maitatzen dutela diote. Nik sinisten diet. Maitatu, nola maitatu? Or zegok kokxa!

Nola maitatzeaz gain, nor maitatzen dugun ere kontuan izan bear dugu. Maitatzen gaituztenak maitatzea erreza da. Eta maite ez gaituztenak maite al ditugu?

Gizakiaren oiñarri-oiñarrikoa da maitatzea. Bizitza baieztatzen da guk maitatzen dugunean. Anitz dira maitasun billa ibilli eta ikutu edo igurtzien bilduma edo kolekzioa aurkitzen dutenak.

Ala erran zuen Lemaitre-k: «Geurekoikeria da maitasuna zulatzen duen xomorroa».

Maitatzea ez da gauzak ematea; ez da itz xarmangarriak erne dagoen entzumenari erratea...

Gizakiarekiko ardura ezin dezakegu aldameneratu. Denok sentitu dugu urkoarekin biotz-zabal izateko deia. Zer nolako erantzuna eman dugu?

Urkoa serbitzen duen gizon-emakumerik den bitartean, itxaropenaren printza ez da itzaliko. Zorionez, lan orretan ari direnak asko ta asko

dira.

Egiazko maitasunak ez du bereizketarik egiten. Ez luke egin bear. Jainkoak Semea maite izan duen moduan maite bear ditugu senideak.

Gure Elizak «gaisoen eguna» du gaur. Jesus-ek erakutsi digu gaisoak zaintzen, errespetatzen eta maitatzen. Ori da, ain zuzen, gure bereizgarria: gaisoak maitatzea eta zaintzea. Maitatu orde gure gizarteak -guk-, gaisoak baztertu egiten ditugu, edota zaar-egoitzetara eramane. Leen norbait «miserikordira» eramatea (ala erraten zen) erabat arrigarria zen.

Orain berriz, egunero gertatzen den zerbait da. Zerrenda luzeak dira zaar egoitzetara sartu aal izateko. Eta dirurik ez duzu, kostako zaizu oe bat arrapatzea etxe oietan! Eguneroko ogia irabazten ez duen gizon-emakumeak ez du deus balio. Gizarte onetan bizitzari eta lanari etekin aundiak atera bear zaizkie.

Gaisoak maitatzen jakitea gauza aundia da. Ez da erreza, ez, egiaz maitatzea. Jesus-ek, ordea, au digu gaurkoan: «maite ezazue elkar». Elkar maitatzeak gaisoak ere onartzea eta maitatzea erran nai du, noski.

Artzalluz'tar Joxemari

Sekau-berdin-zaleen «ezkontzak»

Latiñezko «sexus» itzetik datoz, gaztelerazko «sexo» bezala, erdera geienetako itzak, gizonezko eta emakumezkoen arteko ezberdintasunaren sustraia adierazteko. Euskerak badu sustrai ori adierazteko itz berei-zia: kunde.

Europa'ko Estadu edo Laterriren batean onarturik daude «homosexual» edo «kuntzeberdinekoen» arteko ezkontzak. Emen ez gera ortaraiño irit-xi... orain arte beintzat.

Bañan ari da sortzen alako istillu bat On Joxeanjel Cuerdia Gazteiz'ko Alkateak eman-berri dun erabaki ausarta baten inguruan.

Gazteiz'ko Alkate Jaunak ez du kuntze-berdin-zalekeria ontzat artzen. Ez orixe! Kristau zintzoa bait da bera. Baña, ezkondurik egon gabe alka-rrekin bizi diren guztiei, ezkonduko sendiei ematen zaizkien bentaja guztiak eskeintzen dizkie.

Bentaja-oien jabe egiteko, Gazteiz'ko udaletxean aintzuzen ortarako iriki dun zerrenda batean beren izenak ematea besterik ez die eskatzen. Ez eliz batean ezkontza kristau ez juzgadu batean ezkontza zibil ez kondurik ez dauden bikote guztiak sartu ditezke zerrenda ortan, naiz bikoteak kuntze berdinekoak izen.

Ez da arritzekoa-ta, beste udal batzuk ere asi dire Gazteiz'ko udalaren bidetik sartzen. Eta sartuko dire beste asko ere.

Zer pentsa ba, Gazteiz'ko Alkate Jaunaren jardunkeraz?

Araba'ko Gotzai Jaunak, On Joxemari Larrauri'k, eman dio lenen erantzuna: «Ezkontzan onarritutako sendiek, eta Ezkontzarik gabeko alkarrekin ez omen dituzte eskubide berdiñak». Ori izen da Gotzaiaren erantzunaren muiña.

Egia da ori guztia, baña nere ustez, ez da arazo larri onen guneraiño iristen. Esan dezagun berriro, ez dula Gazteiz'ko Alkate Jaunak, kuntze-berdin-keria ontzat artzen. Ori, direla urte batzuk, Tolosa'ko udalak egin zigun. Baita geiago ere! HB'ko kontzejalek eskatuta, kuntzeberdinkeria, «de interés público municipal», ots, «uriko biztanleentzat onuragarria» zala erabaki bait zigun batzar zaratatsu batean.

Al ta auxe bai parregarria..., autarki edo boto bat bear zuten HB'tarrek eskari ura aurrera ateratzeko. Karlis-tek bazuten udalean kontzejal bat, -neska bat-, ba, neska orrek baiezko autarkia eman zulako atera zen aurrera HB'tarren eskaria. Ez zeuden bizirik, Tolosa'ko kaleetan, orain eun urteko karlista zaarak!!! JEL-zaleei adarra jotzeko egin ote zun ori, bera kuntzeberdinezalea ez den neskak? Asarre bizian gelditu zen beintzat On Iñaki Linazasoro, Tolosa'ko Alkate Jaun JEL-zalea! Lendik itza emana omen zion ba, gañera, neska arrek, HB'tarren eskariari ezezko autarkia emango ziola!

Neska aren jokaera eta Gazteiz'ko Alkate Jaunarena ez dire noski berdiñak. Alagutuz, nere ustez ez da zuzena Alkate Jaun onena ere.

Bat nator Alkate Jaun orrekin, kuntzeberdinezaleak gizakumeak direla, eta, orregatik, gizakume guztiek, gizakume izate utsagatik, bereak dituzten eskubide guztiak aiek ere badituztela esateko.

Kuntzeberdinezalekeriak ordea bature eskubiderik ez du. Gizakumerik gaiztoenek ere badituzte giza-eskubide guztiak. Gaiztakeriak ordea bature eskubiderik ez du.

Ta, nere ustez kuntzeberdinezalekeria da, Gazteiz'ko Alkateak saritzen diguna; eskeintzen ditun bentajak, kuntzeberdinezaleei ez baña kuntzeberdinezalekeriari ematen bait dizkie, bentaja oiek irabazteko, kuntzeberdin-zaleei ezkonduak bezala alkarrekin bizitzea eskatzen dien ezkerro.

Badakit ez dela ori berak egin nai duna, bañan, naiz berak nai ez, ori da bere jardunkera orren bidez egiten duna.

Latiegi'tar Bixente